2020ITGB0014

Ordizian, **2020ko azaroaren 12a**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

En Ordizia, siendo el día **12 de noviembre de 2020** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

| | |
|---|---|
| Maitane Alvarez Garziandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Bittor Bolinaga | EAJ/PNV |
| Iñaki Dubreuil Churruca | PSE-EE (PSOE) |

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

Jose Miguel Santamaría Ezeiza

**IDAZKARIA ORDEZKATUZ, AOTa:**

Lide Gurrutxaga Urbieta

**BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1.- 2020ko urriak 29ko bileraren aktaren zirriborroa onartzea.

2.- Ordiziako lokal komertzial hutsak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko 2020ko programaren oinarri arautzaileak onartzea.

3.- A.I.U. 5 Iturtxo eremuko Iturtxobidea kaleko 6. Zenbakia berreraikitzeko Xehetasun Azterlanaren hasierako onarpena.

4.- 2020/1019 Alkate Dekretu bidez ALDAPE ETXEGILEAK S.L. enpresari, Ordiziako Zeberioenea 6-8, A.I.U 22 “San Joan”eko a.20.2 partzelan eraikitako etxebizitza eta garajetarako emandako lehen erabilerarako baimena.

5.- Alkatea baimentzea Eguberrietak argien kontratazio espedientearen hasiera Dekretu bidez baimentzeko epeak direla eta.

**ASUNTOS TRATADOS**

**ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:**

1.- Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 29 de octubre de 2020.

2.- Aprobación de las bases reguladoras del programa de ayudas a emprendedores para la recuperación de locales comerciales vacíos 2020.

3.- Aprobación inicial del Estudio de Detalle para la reconstrucción del nº 6 de Iturtxobidea del A.I.U. 5 Iturtxo.

4.- Ratificación de la licencia de primera ocupación concedida por Decreto de Alcaldía 2020/1019 a ALDAPE ETXEGILEAK S.L. para las viviendas y garajes construidos en la parcela a20.2 del A.I.U. 22 “San Juan” Zeberionea kalea 6-8.

5. Autorizar al alcalde la aprobación mediante decreto de alcaldía del expediente de contratación para la iluminación navideña, debido a los plazos ajustados.

6.- Zenbait txosten eta eskaera.

.- Komertzio eta ostalaritzako diru laguntzen inguruko azalpenak.
.- Aldundiko deialdiarekin lotutako inbertsioetarako diru laguntzen eskaerak.
.- Mugikor zenbakia COVID 19akin lotuta.
.- Egin den PCR kribatuaren emaitzak.
.- Joko aretoko bizilagunen kejak.
.- Idazkaritza prozesuaren berri eman da.
.- Ongizateko Kontseilua berrekitea.
.- Enplegu datuak kezkagarriak.
.- PSOEren eskaeraz Udalbatzarrera eramango da GEHITUren proposamena.
.- Informatika postuaren inguruko galdera.

6.- Informes y solicitudes varias.

.- Información sobre las subvenciones de comercio y hostelería.
.- Solicitudes de subvención para inversiones relacionadas con la convocatoria de la Diputación.
.- Número de móvil asociado al COVID 19.
.- Resultados del cribado PCR realizado.
.- Quejas de los vecinos sobre el salón de juego.
.- Información sobre el proceso de secretaría.
.- Reanudación del Consejo de Bienestar.
.- Problemática por los datos de empleo.
.- Proposición de GEHITU suscrita por PSOE para tratarla en el próximo pleno.
.- Pregunta relativa al puesto de informática.

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

Ez da izan.

**GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**

Ez da izan.

**<u>ORDUTEGIA</u>**

**HASIERA ORDUA: 13:00etan** **AMAIERA ORDUA: 15:45tan.**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2020ko urriaren 29ako bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2020ko urriaren 29ako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

**1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 29 de octubre de 2020**

Propuesta

**Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 29 de octubre de 2020.**

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Ez da eztabaidarik izan honen inguruan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- Ordiziako lokal komertzial hutsak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko 2020ko programaren oinarri arautzaileak onartzea**

Proposamena

Merkataritza lokal hutsak berreskuratzeko ekintzaile berriei dirulaguntzak emateko ORDIZIA ZABALIK izeneko programaren oinarrien berri ematen da, 2020 urterako.

Aipatutako oinarriak Udalak onartutako dirulaguntzak arautzeko ordenantza berrira egokitzen dira.

Hori guztia ikusita, ondorengo akordioa proposatzea erabaki da:

**AKORDIO PROIEKTUA**

* Merkataritza lokal hutsak berreskuratzeko ekintzaile berriei diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak onartzea eta diru-laguntzen deialdia onartzea, zeinak akordio honen eranskin gisa jasotzen diren.

**2.- Aprobación de las bases reguladoras del programa de ayudas a emprendedores para la recuperación de locales comerciales vacíos 2020.**

Propuesta

Se da cuenta de las bases elaboradas para la concesión de ayudas a emprendedores para recuperación de locales comerciales vacíos, programa denominado ORDIZIA ZABALIK, para el año 2020.

Dichas bases se adecuan a la nueva Ordenanza de Subvenciones aprobada por este Ayuntamiento.

A la vista de todo ello se acuerda proponer el siguiente:

**PROYECTO DE ACUERDO**

* Aprobar las Bases y convocatoria para concesión de ayudas a emprendedores para la recuperación de locales comerciales vacíos que se adjuntan como anexo al presente acuerdo.



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Proposamena 2020ko urriak 29ko Tokiko Gobernu Batzordera eraman zen, hura mahai gainean gelditu zela.

La propuesta fue tratada en la Junta de Gobierno Local de fecha 29 de octubre de 2020, quedando este asunto sobre la mesa.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jauna

Alkate jaunak azaltzen du aurreko Tokiko Gobernu Batzordean Sukia andreak adierazitako ekarpenak sartu direla oinarrietan.

Dubreuil jauna

Dubreuil jaunak dio hurrengo urteko deialdiari begira planteatu beharko litzatekeela alokairua, gero erosteko aukerarekin.

Aipatzen du oso orokorrak direla oinarrietako betekizunak. Era berean, aditzera ematen du Ordiziako Udaleko diru laguntzen erregelamendura egokitu behar dela deialdia. Ohartu da ez datorrela bat diru laguntzaren modalitatearen aipamenari dagokionez.

Lide Gurrutxaga

Dubreuil jaunak egindako aipamenaren baitan komentatzen du beharrezko aldaketa egingo dela deialdia erregelamendura egokitzeko, 2. artikulua aldatu behar da besteak beste.

Lidek adierazten du, aurrez komentatu diola Maitane Alvarez zinegotzi delegatuari, deialdi honen oinarriak egokitu behar direla datorren urten; izan ere, zaharkituak daude eta testuingurura egokitu behar dira. Beraz komeni da datorren urtean lehenagotik lantzea egin beharreko egokitzapenak, bai formari baita edukiari begira ere.

Alkate jauna

Adurrek dio deialdiaren baitako eskaintzak jasotakoan ikusi beharko dela nola baloratu zehatzago.

Dubreui jauna

Dubreuil jaunak dio diru laguntzak emateko alokairuen prezioarekin lotutako balorazio tauletan egiten den kalezkako zatiketan aldaketak egon direla aurreko urtearekiko.

Sr. Alcalde

El Sr. Alcalde explica que en las bases se han incluido las aportaciones expresadas por la Sra. Sukia.

Sr. Dubreuil

El Sr. Dubreuil dice que el alquiler debería plantearse de cara a la convocatoria del año siguiente, y posteriormente con opción a compra.

Señala que los requisitos de las bases son muy generales. Asimismo, indica que la convocatoria debe ajustarse al Reglamento de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia. Se observa que no es acorde a la modalidad de subvención.

Lide Gurrutxaga

En el marco de la referencia realizada por el Sr. Dubreuil comenta que se va a realizar la modificación necesaria para adecuar la convocatoria al reglamento, hay que modificar, entre otros, el artículo 2.

Lide señala que previamente ha comentado a la concejala delegada, Maitane Alvarez, la necesidad de adecuar las bases de esta convocatoria el año que viene, ya que están obsoletas y deben adaptarse al contexto. Por lo tanto, es conveniente que el próximo año se trabajen las adaptaciones a realizar con anterioridad, tanto en lo que concierne a la forma como al contenido.

Sr. Alcalde

Adur dice que una vez recibidas las ofertas de la convocatoria habrá que ver cómo valorarlas con más detalle.

Sr. Dubreui

El Sr. Dubreuil señala que en las tablas de valoración relacionadas con el precio de los alquileres para la concesión de las subvenciones se han producido cambios en el fraccionamiento callejero respecto al



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Alvarez andrea

Maitanek argitzen du web orrian ez dagoela 2019ko deialdia, zaharra agertzen dela, eta ez dela zentzu horretan aldaketarik izan aurreko urteko deialdiarekiko.

Dubreuil jauna

Iñakik datorren urteko deialdiari begira klausula sozialak landu eta sartzea proposatzen du.

año anterior.

Sra. Alvarez

Maitane aclara que en la página web no está la convocatoria de 2019, que aparece la antigua y que no ha habido cambios en ese sentido respecto a la convocatoria del año anterior.

Sr. Dubreuil

Iñaki propone elaborar e introducir cláusulas sociales de cara a la convocatoria del año que viene.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- A.I.U. 5 Iturtxo eremuko Iturtxobidea kaleko 6. Zenbakia berreraikitzeko Xehetasun Azterlanaren hasierako onarpena**

Proposamena

Aztertu da "5-Iturtxo" hirigintzako Esku Hartze Eremuko 6. zenbakiko Iturtxo Bideko eraikuntzaren xehetasun-azterlana onartzeko izapidetu den espedientea (sarrera-erregistroa: 2315/2020, 2020ko uztailaren 28koa).

Udal arkitektoaren 2020ko urriaren 22ko txostena eta Udaleko idazkariaren 2020ko azaroaren 10eko txostena ikusi dira.

2020ko azaroaren 4ko Obra eta Hirigintza Delegaritzaren aldeko proposamena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 j) artikulua eta 2020/0623 Dekretua, 2020ko ekainaren 30koa, Alkatearen eskumenak Tokiko Gobernu-batzarrari eskuordetzen dizkiona ikusita, onartzeko eskumena duen organoari dagokionez.

Aurrekoa ikusita, honako erabaki hau hartzea

**3.- Aprobación inicial del Estudio de Detalle para la reconstrucción del nº 6 de Iturtxobidea del A.I.U. 5 Iturtxo.**

Propuesta

Visto el expediente que se tramita para la aprobación del Estudio de Detalle dela edificación de Iturtxo Bidea nº 6 del Área de Intervención Urbanística “5-Iturtxo”, con registro de entrada nº 2315/2020 de fecha 28 de julio de 2020

Visto el Informe del Arquitecto municipal de fecha 22 de octubre de 2020 y de la Secretaria municipal de fecha 10 de noviembre de 2020.

La propuesta favorable de la Delegación de Obras y Urbanismo de fecha 4 de noviembre de 2020.

Visto el artículo 21.1 j) de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local y el decreto nº 2020/0623, de fecha 30 de junio de 2020 por el que se delegan atribuciones del Alcalde en la Junta de Gobierno Local, en lo que al órgano competente para su aprobación se refiere.

A la vista de lo anterior, se propone la adopción del siguiente



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

proposatzen da

AKORDIO-PROIEKTUA

1.- Hasierako onarpena ematea Jabeen Erkidegoak 2020ko uztailaren 28an aurkeztutako "5-Iturtxo" HIEko Iturtxo Bideko 6. zenbakiko eraikuntzaren Xehetasun-azterlanari.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea hogei egunez, iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan eta zabalkunde handieneko egunkarietako batean argitaratuz. Epe horretan, espedientea aztertu nahi duen edonork izango du eskuragarri, alegazioak aurkez ditzan.

3.- Eraikuntza-, partzelazio-, eraispen-, erabilera- eta jarduera-lizentzien emakida etetea, Xehetasun-azterlan honen xede den lurralde-eremu osoan.

4. Lurralde-eremu horretako jabeei eta zuzenean ukitutako gainerako interesdunei helaraztea

* Ebazpen hau doakion interesdunari edo interesdunei jakinaraztea.

PROYECTO DE ACUERDO

1.- Aprobar inicialmente el Estudio de Detalle de la edificación de Iturtxo Bidea nº 6 del A.I.U. “5-Iturtxo”, presentado en fecha 28 de julio de 2020 por la Comunidad de propietarios.

2.- Someter a información pública el expediente por plazo de veinte días mediante la publicación de anuncios en el Boletín Oficial de Guipúzcoa, tablón de anuncios del Ayuntamiento y en uno de los periódicos de mayor circulación, quedando durante dicho periodo el expediente a disposición de cualquiera que quiera examinarlo a los efectos de formular alegaciones.

3.- Proceder a la suspensión del otorgamiento de licencias de edificación, parcelación, demolición, usos y actividades, en toda el ámbito territorial objeto del presente Estudio de Detalle.

4. Dar traslado a los propietarios y demás interesados directamente afectados, comprendidos en el ámbito territorial citado

* Notifíquese la presente resolución al interesado o interesados.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jauna

Alkateak azalpenak ematen ditu, besteak beste, azaldu du lurren jabeak zein diren eta parte pribatua eta parte publikoa zein diren. Horretarako, deialdian atxikita joan diren dokumentuak eta planoak baliatuz xehetasun azterlanaren gaineko azalpenak ematen ditu.

Azaldu du ere aurrez zegoenaren errekonstrukzioa egiten dela, adierazten du zeuden metro karratuak etxebizitzen metro karratuekin asimilatzen direla. Atzealdea libratu nahi da, eta horretarako biala zeditu egiten da. Perfilen aldaketa proposatu da. Hitzarmena sinatuta dago eta aurreikusten da bizilagunek alegazioak aurkeztuko dituztela, orain onartuz GAOn argitaratuta alegazioak aurkezteko epea abiatuko da.

Sukia andrea

Milak dio eraikigarritasunaren bolumena kontuan hartuta beste aukera bat eman behar zaiola.

Inguruarekiko perfila modifikatzen da.

Sr. Alcalde

El Sr. Alcalde informa sobre los propietarios de los terrenos, y sobre la parte privada y la parte pública. En base a los documentos y planos remitidos junto con la convocatoria, expone el estudio de detalle.

También explica que se reconstruye lo existente, indica que los metros cuadrados se asimilan a los metros cuadrados de las viviendas. Se trata de librar la parte trasera, para lo cual se cede el vial. Se propone la modificación de perfiles. El convenio está firmado y se prevé que los vecinos presenten alegaciones, aprobando ahora la publicación en el BOG se abre el plazo para presentar alegaciones.

Sukia andrea

Mila dice que teniendo en cuenta el volumen de edificabilidad hay que darle otra alternativa.

Se modifica el perfil del entorno.

Alkate jauna

Alkateak dio arau subsidiariotan aurreikusten dela berreraikitzeko aukera. Orain agian berandu dela.

Planta bakoitzeko lau bat etxebizitza jasotzen dira.

Sr. Alcalde

El Sr.Alcalde indica que las Normas Subsidiarias contemplan la posibilidad de reconstrucción. Quizá ahora es tarde.

Se recogen unas cuatro viviendas por planta.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak/**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- 2020/1019 Alkate Dekretu bidez ALDAPE ETXEGILEAK S.L. enpresari, Ordiziako Zeberioenea 6-8, A.I.U 22 “San Joan”eko a.20.2 partzelan eraikitako etxebizitza eta garajetarako emandako lehen erabilerarako baimena berrestea.**

**2020/1019. DEKRETUA**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

- 2020ko Uztailaren 17ean, Ion Peñagarikanok, B20717013 CIF zenbakia duen Aldape Etxegileak S.L. enpresaren ordezkari gisa egindako eskaera, Ordiziako Zeberioenea 6-8, AI.U 22 “San Joan”eko a.20.2 partzelako etxebizitza eta garajetako eraikinaren lehen erabilerako baimena eskatuz.

- Eraikinari udal teknikariak egindako ikustaldiari dagokion 2020ko azaroaren 5eko aldeko txosten teknikoa.

- 2020ko azaroaren 4eko Hirigintzako delegaritzaren ebazpen proposamena.

- Aldape Etxegileak S.L. enpresak a.20.2 partzelari zegozkion ordaindu gabeko urbanizazio kargei zegozkien 83.323,39 euroak ordaindu dituela.

**HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

* ALDAPE ETXEGILEAK S.L., Ordiziako

**4.- Ratificación de la licencia de primera ocupación concedida por Decreto de Alcaldía 2020/1019 a ALDAPE ETXEGILEAK S.L. para las viviendas y garajes construidos en la parcela a20.2 del A.I.U. 22 “San Juan” Zeberionea kalea 6-8**

**DECRETO Nº 2020/1019**

**A LA VISTA DE:**

- La solicitud realizada el 17 de julio de 2020 por Ion Peñagarikano, en representación de la empresa Aldape Etxegileak S.L. con número de CIF B20717013, de la autorización de primera utilización del edificio de viviendas y garajes de Zeberioenea 6-8, AI.U 22 "San Juan", parcela a.20.2 sita en Ordizia.

- El Informe técnico favorable de 5 de noviembre de 2020 relativo a la inspección realizada por el técnico municipal al edificio.

- La Propuesta de Resolución de la Delegación de Urbanismo de 4 de noviembre de 2020.

- Que Aldape Etxegileak S.L. ha satisfecho las cantidad de 83.323,39 € en concepto de cargas de urbanización pendientes correspondientes a la parcela a.20.2

**TENGO A BIEN:**

* Conceder a ALDAPE ETXEGILEAK S.L., la Licencia de Primera Utilización de las viviendas y garajes de la

Zeberioenea 6-8, AI.U 22 “San Juan”eko a.20.2 partzelan kokaturik dagoen etxebizitza eta garajetako eraikinaren lehen erabilerarako baimena EMATEA, baina aurrez dagozkion udal tasak ordaintzeko baldintzaturik geldituz.

parcela a.20.2 A.I.U 22 de “San Juan” de la calle Zeberioenea 6-8, condicionada al previo pago de las tasas municipales correspondientes.

* Hondakinen kudeaketa egokirako jarritako 6.113,23 eurotako bermea itzultzea.

* Proceder a la devolución del aval de 6.113,23 euros depositado para la correcta gestión de los residuis.

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

* Notifíquese el presente Decreto a los interesados.

<u>Eztabaida</u>

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

<u>Alkate jauna</u>

Alkate jaunak azaltzen du Alkate Dekretu bidez ALDAPE ETXEGILEAK S.L., Ordiziako Zeberioenea 6-8, AI.U 22 “San Juan”eko a.20.2 partzelan kokaturik dagoen etxebizitza eta garajetako eraikinaren lehen erabilerarako baimena eman dela eta Aldape Etxegileak S.L. enpresak a.20.2 partzelari zegozkion ordaindu gabeko urbanizazio kargei zegozkien 83.323,39 euroak ordaindu dituela.

<u>Sr. Alcalde</u>

El Sr. Alcalde expone que mediante Decreto de Alcaldía se ha autorizado el primer uso del edificio de viviendas y garajes sito en la parcela a.20.2 de Aldape etxegileak S.L., Zeberioenea 6-8 de Ordizia, AI.U 22 "San Juan" y que Aldape Etxegileak S.L. ha abonado 83.323,39 euros correspondientes a las cargas de urbanización pendientes de pago correspondientes a la parcela a.20.2.

**<u>Bozketa</u>**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak/**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**<u>5.- Alkatea baimentzea Eguberrietako argien kontratazio espedientearen hasiera Dekretu bidez baimentzeko epeak direlaeta.</u>**

<u>Proposamena</u>

Kontratua esleitzeko abiarazi den Kontratazio espedientearen berri eman da. Kontratuaren xedea Ordiziako 2020-2021 gabon jaietarako apaindurako argiteriaren beharrezko material guztiak alokatzea, jartzea eta kentzea da, hala nola horien mantentze lana eta matxuratutako elementuen ordeztea. Jarduketa horiek osatzen dute gabon argiteria jartzeko lanen multzoko zerbitzua.

Kontratuaren balio zenbatetsia 25.000 euro (%21eko

**<u>5. Autorizar al alcalde la aprobación mediante decreto de alcaldía del expediente de contratación para la iluminación navideña, debido a los plazos ajustados.</u>**

<u>Propuesta</u>

Se da cuenta del expediente de Contratación iniciado para la adjudicación del contrato. El objeto del contrato es el alquiler, colocación y retirada de todos los materiales necesarios del alumbrado ornamental para las fiestas de Navidad 2020-2021 de Ordizia, así como su mantenimiento y sustitución de elementos averiados. Estas actuaciones complementan el servicio del conjunto de obras de alumbrado navideño.

El valor estimado del contrato es de 25.000 euros (IVA

BEZ-a barne) koa da.

Administrazio-klausula zehatzen eta teknikoen agiriaren berri eman da, hauek aurki amaituko direla.

AKORDIO PROIEKTUA:

Lehenengoa.- Baimentzea Alkatea kontratzio espediente hau onartzera.

incluido 21%).

Se da cuenta del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas, cuya finalización está próxima.

PROYECTO DE ACUERDO:

Primero.- Autorizar al Alcalde para la aprobación del presente expediente contractual.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Lide Gurrutxaga

Lidek aditzera ematen du Gabonetako argien kontratazio espedientea izapidetzeko astirik ez duela izan, gaurko, behar bezala, administrazio pleguak eta dagokion dokumentazioa osatzeko.

Alabaina, biharko osatzea aurreikusten du eta beraz, Tokiko Gobernu Batzordeko kideei azaltzen die zein izango den lizitazioaren gastua eta lehenbailen jarriko duela martxan gabonetako kontratazioa formalizatuta izateko.

Lide Gurrutxaga

Lide indica que no ha tenido tiempo de tramitar el expediente de contratación de luces de Navidad, es decir para completar los pliegos administrativos y la documentación correspondiente.

Sin embargo, prevé que se complete mañana, por lo que explica a los miembros de la Junta de Gobierno Local cuál va a ser el gasto de la licitación y la puesta en marcha de la misma para tener formalizada la contratación navideña.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak/**:0

**Beraz Alkate jaunak akordioa aho batez onartutzat jo du.**

**6.- Zenbait txosten eta eskaera**

Alkate jauna

Diru laguntzen inguruko azalpenak. Komertzio eta ostalaritzako bonoen lehen tandan dirua sobratu zen. Erabili ez diren bonoak gehienak ostalaritzan izan dira. Nola erabili diren bonoak ere azaltzen dira txostenean.

Bonoen bigarren txanda ere banatu da. Aipatu du berriro ere banaketa ez dela eraginkorra izan, hau da, bonoak ez direla etxebizitza guztitara iritsi.

**6.- Informes y solicitudes varias.**

Sr. Alcalde

Explicación de las subvenciones. Sobró dinero en la primera tanda de bonos de comercio y hostelería. La mayoría de los bonos no utilizados han sido en hostelería. En el informe también se explica cómo se han utilizado los bonos.

También se ha repartido la segunda tanda de bonos. Comenta que de nuevo la distribución no ha sido efectiva, es decir, los bonos no han llegado a todas las



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Lapurtu ere egin direla komentatu da. Kontuak kontu, 368 bono izan dira banatu gabe gelditu direnak.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Alkate jauna

Aldundiko deialdiarekin lotutako inbertsioetarako diru laguntzen eskaerak aztertu dira. Kontu hartzailetzatik eta Idazkaritzatik adierazi da eskaera batzuk ez direla sartuko diru laguntzan, ez baitira negozio motagatik justifikagarriak Aldundian. Beraz, ikusi behar da horiek onartu edo zer egin.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Alkate jauna

Mugikor zenbaki bat jarri da COVID 19akin lotuta, Marian Asenjo Gizarte Langileak jarraipena egin zuen adineko pertsonan beharrak zein ziren aztertzeko. Helburua da aislamendua saihestea eta laguntza behar dutenen eskaerak artatzea. Konfinatu bai, baino aislatu ez.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Alkate jauna

Adurrek dio egin den PCR Kribatuaren emaitza 2.629 froga direla, baina ez dakigula zenbat diren Udalerrikoak. Herriak ez dira bereizten eta eguneroko udalen datuak. Edadezkako desgloseak oso inportanteak dira gero ondorioak ateratzeko eta neurriak bideratzeko.

Sukia andrea

Milak dio keja formal bat egingo lukeela honen inguruan.

Alkate jauna

Adurrek dio kontsultatu zela tabernariek edaria saldu ahal zuten, azaroak 6an hartutako neurrien baitan. Astelehenen ezezkoa jaso zela esan du, baina gaurko LABI ko bilerara ere bazioala honen inguruko eskaera.

Alkate jauna

Adurrek komentatzen du 2021 urteko ordenantza fiskalei beira hondakinetan ere tasak modifikatu ahal izatea ere aurreikusten dela ostalarientzat.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

viviendas. Se comenta que también se han robado. El número de bonos no distribuidos ha sido de 368.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Sr. Alcalde

Se han analizado las solicitudes de subvención para inversiones relacionadas con la convocatoria de la Diputación. Desde Intervención y Secretaría se indica que algunas solicitudes no van a ser incluidas en la subvención, ya que no son justificables por el tipo de negocio en la Diputación. Por lo tanto, hay que ver qué hacer o aceptarlas.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Sr. Alcalde

Se ha habilitado un número de móvil asociado a COVID 19 para analizar las necesidades de la persona mayor que fue objeto de seguimiento por parte de la Trabajadora Social Marian Asenjo. El objetivo es evitar el ocio y atender las demandas de las personas que necesitan ayuda. Confinar sí, pero aislar no.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Sr. Alcalde

Adur dice que el resultado del Cribado PCR es de 2.629 pruebas, pero que no sabemos cuántas son del municipio. No se distinguen los datos por pueblos y los datos de los ayuntamientos diarios. El desglose por edades es muy importantes para luego sacar conclusiones y orientar las medidas atomar.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Sukia andrea

Milá dice que haría una keja formal sobre esto.

Sr. Alcalde

Adur dice que se consultó si los bares podían vender la bebida, dentro de las medidas adoptadas el 6 de noviembre. Dice que se recibió una respuesta negativa el lunes en ese sentido, pero que la petición era también a la reunión de LAB de hoy.

Sr. Alcalde

Adur comenta que también se prevé que las ordenanzas fiscales de 2021 puedan modificar las tasas en los residuos de vidrio para los hosteleros.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Alkate jauna

Alkateak azaltzen du Joko aretoko bizilagunak kejak aurkeztu dituztela, aretoaren baitan sortu den egoera dela eta. Auzoki 2 eta 4 ko bizilagunekin bilera egin da. Droga trafikoa mugitzen da aretoaren baitan eta hainbat iskanbila sortu dira. Txosten bat egingo da, baina egoera honek kontrol handiagoa eskatzen du.

Sr. Alcalde

El alcalde explica que los vecinos de la sala de juegos han presentado las quejas ante la situación creada entrorno a la sala. Se ha mantenido una reunión con los vecinos de Auzoki 2 y 4. En el interior de la sala se mueve el tráfico de drogas y se han producido varios tumultos. Se realizará un informe, pero esta situación requiere un mayor control.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Alkate jauna

Alkateak dio etxebizitzen salmenta dela eta momentuz ari dela apuntatzen jendea. Asteartean bilera egin zen Esteban Umerezekin eta onartu zuen ez duela informe bat egin Ordizia Lantzen baltzuaren egoera nola utzi denaren inguruan. Desegitearen inguruko proposamena egingo du, informazio kontable guztia edukiko duena.

Adurrek komentatu du hiru zona falta direla urbanizatzeko. Ikusi behar dela hortik zenbat diru ateratzen den. Aurrekontua ere eman zaiela KIMU BAT enpresakoei eta bestalde urbanizazio kargak aktualizatzen ari gara.

Adurrek dio Ordizia Lantzenekin daukagun zorra printzipioz estalita daukagula. Kargaz libre ezingo da saldu A.20.3 lursaila. Repartzelazio proiektua 2007an egin zen. Aktualizazioa egin beharko da.

Ordizia Lantzeni begira, ideia baltzua desegitea eta likidatzea izango da. A.20.3 lursailaren enajenazioa eta adjudikazioak presa dauka eta lehenbailen ateratzea komeni da, garai onak baitira horretarako.

Sr. Alcalde

El Alcalde dice que la gente se está apuntando a la venta de viviendas. El martes se celebró una reunión con Esteban Umerez, el cual ha reconocido que no ha realizado un informe sobre cómo ha dejado la situación de Ordizia Lantzen. Elaborará una propuesta de disolución que contendrá toda la información contable.

Adur comenta que faltan tres zonas por urbanizar. Hay que ver cuánto dinero sale de ahí. Por otra parte, estamos actualizando las cargas de urbanización.

Adur dice que la deuda que tenemos con el Ordizia Lantzen la tenemos cubierta en principio. No se podrá vender libre de cargas la parcela A.20.3. El proyecto de reparcela ción se realizó en 2007. Deberá actualizarse.

De cara a Ordizia Lantzen, la idea será disolver y liquidar la sociedad. La enajenación y adjudicación de la parcela A.20.3 es urgente y conviene sacarla en el momento oportuno.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Alkate jauna

Idazkaritza prozesuaren berri eman du eta komentatu du kontu hartzailetzako postua betetzeko lan poltsara deialdia egiteko eskaera ere egin dela Jaurlaritzara, hutsik geratuko baita berriz postua.

Sr. Alcalde

Informa del proceso de secretaría y comenta que también se ha solicitado al Gobierno la convocatoria de la bolsa de trabajo para cubrir el puesto de Intervención, ya que el puesto volverá a quedar vacante.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Dubreuil jauna

Ongizateko Kontseilua berrekitea interesgarria

Sr. Dubreuil

izango litzatekeela komentatu du, hau COVID 19 agatik alboratu gabe.

Comenta que sería interesante la reanudación del Consejo de Bienestar, sin dejar esto por COVID 19.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Dubreuil jauna

Enplegu datuak kezkagarriak direla komentatu du. Langabezia datuak izugarriak direla Ordizian eta langabezian dagoenaren formazio maila eskasa dela.

Sr. Dubreuil

Comenta que los datos de empleo son preocupantes. Que los datos de paro son enormes en Ordizia y que el nivel de formación de quien está en paro es escaso.

Alkate jauna

Adurrek komentatu du Goierri Eskolako kurtsoetara diru asko bideratzen dela ikasleko. Datorren urtera begira aztertu behar dela finantzazio hau.

Sr. Alcalde

Adur comenta que se destina mucho dinero por alumno a los cursos de Goierri Eskola. Esta financiación debe ser analizada de cara al próximo año.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Dubreuil jauna

Iñakik komentatu du PSOren eskaeraz Udalbatzarrera eramango dela GEHITUren instantziaz bere garaian hartutako Udalbatza Akordioa gauzatzeko akzio plana.

Sr. Dubreuil

Iñaki comenta que a petición del PSOE se llevará al Pleno el plan de acción para la ejecución del Acuerdo de Corporación adoptado en su día por instancia de GEHITU.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Dubreuil jauna

Bukatzeko, Iñakik informatika postuaren inguruko galdera egin du. Postua betetzen ari den pertsonari izendapena abenduak 31an amaituko zaiola eta ea ze asmo dagoen honen inguruan.

Sr. Dubreuil

Para terminar, Iñaki ha preguntado por el puesto de informática. Que el nombramiento de la persona que está ocupando el puesto finalizará el 31 de diciembre y a ver qué intención hay al respecto.

Alkate jauna

Adurrek adierazi du postu horren inguruko perfilen azterketa egiten ari direla eta aztertuko dela gaia.

Sr. Alcalde

Adur ha indicado que se está realizando un análisis de los perfiles de ese puesto y que se estudiará el tema.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**8.- Galde-erreguak**

**8.- Ruegos y preguntas.**

Ez dira izan.



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.

ALKATEAK / EL ALCALDE

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA / LA SECRETARIA ACCIDENTAL

Idazkaria ordeztuz,



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus